

2009ko otsaila

79. zenbakia

Aikor!

txerterriko aldizkaria



ongi
etorri



Belen Gana,

Euskara militantea

CURSOS GRATUITOS 2008-2009

DOAKO IKASTAROAK 2008-2009

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN DINARRIZKO KONTZEPTUAK

Data: Otsailaren 17a Martxoaren 31a

Ordulegia: Astearte, Asteazken eta Ostegunetan / 18:30etatik 20:30era

FAKTURAZIO-KUDEAKETA ETEN

Data: Martxoaren 30a - Ekainaren 03a

Ordulegia: Astelehena eta Asteazkenetan 18:30etatik 20:30era

KUDEAKETA ETA KALITATEA ETEN

Data: Martxoaren 30a - Ekainaren 15a

Ordulegia: Astelehena eta Asteazkenetan 18:30etatik 20:30era

AURREKONTU-KONTROLA ETEN

Data: Martxoaren 31a Maiatzaren 28a

Ordulegia: Astearte eta Ostegunetan 18:00etatik 20:30era



Behargintza
Txorierri

BEHARGINTZA TXORIERRI - FORNAGIO ARLOA / Barnekoak Industrialdea 12-A - Sestao (Bizkaia)

Tel: 94 666 88 00 Fax: 94 666 13 44 behargintza@txorierri.com txorierri.com



TORRELARRAGOITI

Asociación empresarial - Formación Empresarial

Tel: 94 666 88 00 Fax: 94 666 88 01 torrelarragoiti@torrelarragoiti.com www.torrelarragoiti.com

BILERA ZUZENDARITZA, DENBORAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA

Data: Martxoaren 23a - Maiatzaren 27a

Ordulegia: Astelehena, Asteazken eta Ostiralean / 8:00etatik 10:30era

ENPREŞAN LAN TALDEEN ETA LIDERGOAREN GARAPENA ETA ZUZENDARITZA

Data: Martxoaren 30a - Ekainaren 28a

Ordulegia: Astearte eta Ostegunetan / 8:00etatik 10:30era

ERDI MAILAKO KARGUDUN ETA ARDURADUNEN GAIKUNTZA

Data: Martxoaren 30a - Maiatzaren 13a

Ordulegia: Astelehena, Astearte, Asteazken eta Ostegunetan / 17:00etatik 19:30era

UNION EUROPEEN LAGUNTZA ERAGINKORRA
an European Union Financial Instrument

Financiado por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional
Financed by the European Regional Development Fund



Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Imanol Alvarez, Asier Oruetxebarria, Unai Ugalde, Iñaki Barcena, Igor Urrutikoetxea, Sabin Arana, Oihana Astobieta, Silvia Mateo, Maripi Agirre, Inés Serrano, Juan Luis Goikoetxea eta Juanxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2010-11-15-2011-12-31
Mintzakeria/Publikazioa: 2011-01-01



diruz lagundutako aldizkaria

12 Kirmen Uribe



22 AIKOR! aldizkariak zazpi urte bete ditu



16 Eguzki-energian ikertzeko zentroa, Zamudion



30 Derioko Institututko Gurasoen Elkarte



24 Munduko Jendarte Foroa



AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
12Gurean izan da... Kirmen Uribe 14Gaztea eta...
Joanes Camara 16Eguzki-energian ikertzeko zentroa
zabaldur da Zamudion 22AIKOR! aldizkariak zazpi urte
bete ditu 26Txorierritarak, "mundu berria" eraikitzen
28Agate Deuna, Txorierrin 30Derioko Institututko
Gurasoen Elkarte 32Txorierrri ezagutu 34Teknologia
35Antxinako argazkia 36Sukaldaritza
37Denborapasa 38Agenda

J. ELORRIAGA
Prestasun, Berriztatze, Berriztatze eta Berriztatze
Berriztatze, Berriztatze, Berriztatze eta Berriztatze
Berriztatze, Berriztatze, Berriztatze eta Berriztatze
Berriztatze, Berriztatze, Berriztatze eta Berriztatze

Miguel Angel Delgado y Morte
Londres
090 700 744 94 452 00 20

GOBIERNO VASCO
Eusko Jaurlaritza
Berriztatze, Berriztatze, Berriztatze eta Berriztatze
Berriztatze, Berriztatze, Berriztatze eta Berriztatze



Euskara eta hezkuntza, hezkuntza eta euskara... gaia ez da makala, baina aspalditik badabilzkit buruan hainbat ideia. Euskaraz ikasteaz gain, kalean ere erabiltzen duten belaunaldiak hazten ikustea da euskal hezkuntzak duen erronka nagusietako bat. Ni neu ez naiz hasiko orain beleen ipurdi beltzez; norekin erabiltzen dudana euskara, eta norekin gaztelera. Baina hemendik gutxira irakaslea izateko asmoa dut, eta, nire ustez, gure belaunaldiarekin egin diren hainbat akats metodologiko ez errepikatzea espero dut. Beste

Azken urteotan begirale ibili naiz sarritan Euskal Herriko hainbat tokitan. Euskaraz jakin arren, euskaraz egiten ez duten umeak topatu ditut orokorrean. Baita salbuespenak ere: jakin eta erabiltzen dutenak; edo jakin ia ez dakitenak. Jarrera ugari daude begiraleen artean, modu askotako estrategiak, baina den-denek dute ezaugarri bat: aktiboak; hau da, euskararen erabilera suspertzeko ekintza zuzenak. Hala ere, bide laburrenak, eragiketarik logikoenak, askotan ez gaitu eramaten nahi dugun tokira, eta, ondorioz, emaitzarik ez. Bat nator Montessoryrekin umeentzat aukeraketa askea motibazio ikaragarria dela dioenean. Euskaraz bizi den belaunaldi baten bila bagabiltza, euskara eta euskal kultura gorrotatzen dituen baten batekin egin dezakegu topo. Astakeria edo ez, ez dut gogoratzen nori entzun nion behin, euskarak ez duela inoiz berreskuratu diktaduran izan zuen bizitasuna. Gazteegia naiz hori baieztatu edo ezeztatzeko, baina handia da debekuak sortzen duen erakarpena, errepresioak ematen duen indarra.

beste erronka handi bat. Hizkuntza estandar baten beharra dugu, euskaldun guztiok elkarri ulertzeko. Euskara batuaren beharra dugu. Baina ez dezagun ahaztu hizkuntza artifiziala eta berria dela. Oinak zapata handiegietan sartzeko asmorik gabe, baderitzot nolabaiteko kutsu errealistaren falta sumatzen zaiola. Gai serioetarako balio omen ez zuen hizkuntza baten jabe izatetik bizitasunik gabeko hizkuntza administratibo baten jabe izatera pasatu gara. Lagunartekotasun gabezi hori konpontzen ez badugu, kondenatuta dago maite dugun hizkuntza. Euskalkiak berreskuratzea behar-beharrezkoa da, nire ustez, euskara batua alde batera utzi gabe.

Lerro hauekin ez dut zirrikiturik gabe-ko metodologia linguistiko bat aldarrikatu nahi; miraririk ez dago, eta are gutxiago hezkuntzan. Baina koadrilan baditut txikitatik besteei beti euskaraz zuzendu izan zaizkien hiruzpalau lagun. Eta egun, nahiz eta gure artean erdaraz ibili, eurei zuzentzen gatzazkienean, euskaraz egiten diegu konturatu barik beste guztiok. Irakasle finak... eurentzat eta koadrilako gainontze-koentzat ere besarkada bat, faltan botatzen ditut-eta.

Lurrak zorriak daukaz

Gaur, urtarrilak 27, betiko orduan urten dot etxetik beharrera joateko, baina berandu heldu naz. Asutik pasatzean Ertzaintzaren kotxe batek istripu bat zalako iragarpena emon deust, baina erratuta egon naz, guztiz erratuta. Asua ibaiak ganezka egin dau eta bidea itxi behar izan dabe. Ibaiak antzinako bideari eutsi nahian eta guk presari ezin eutsi erlojuari begira. Gaur berandu! Azkenean aurrera egin dot, atzerapena ez da horrenbesterako izan eta bidea lasai egin dot irratia eta liniaparabrisaren erritmo frenetikoa entzuten. Institutura heldu eta argia kinuka hasi jaku, joan eta etorri, joan eta

etorri... Zelango eguna! Arratsaldeko klaseak intimoagoak izan dira, argi ba-koak. Eguraldiak eguna hondatu gura deusku. Zer egin deutsogu ba? Gero kontrako galdera egin deutsot buruari: Zer ez deutsogu egin? Errespetatu. Erantzun erreza baino gaur egun bete-tzeko gatxa. Hasierako itauna egin barri-ro eta mila erantzunetako iturria zabal-du jat. Itsaso, mendi eta lurren gehiegiz-ko ustiapena; karbono dioxido isurketa eskerga... Beharbada mendeku hutsa baino ez da.

Antza, Lurra berotze prozesu geldie-
zinean dago. Bururik baleu, bero ez, ira-
kiten eukiko leuke. Nire ustez, Lurra



ASIER ORUETXEBARRIA
(Irakaslea)

planeta zorritzat baino ez da. Zorriak parasitoak dira, ezta? Gu geu ere bai. Parasitoak kentzeko modu bakarra neurri gogorrak hartzea da, eta Lurra parasitoak burutik kendu gura dauz.

URAS
Estetika dan Massage

8888 Road 10/10, 10/10
Tel: 011-2222-0000 (011-2222-0000)

[illegible]

Pelukeri Estetika
 01 455 81 41
 www.pelukeriestetika.com

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, **AIKOR!**-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.



Esker onez

2009ko urtarrilaren 29a. **AIKOR!** aldizkariaren 7. urteurrena, Loiuko Lauroetan. Jasotako gonbidapenaren xedera azaldu nintzen ekitaldira. Aldizkariaren alde, lehenik; Lauroetako lagunak bisitatzeko eta Txorierriko euskaltzaleak agurtzeko aukerari ere ezin muzin egin.

Hortik gorakoa ezusteko galanta: aurtengo omenduetako bat nintzen, eta Udane Goikoetxeak ezteki-eztiki azaldu zituen gure urteetako joan-etorriak, uste-kabekoa gozatzeraino...

Trantze horretan Txorierrin bizi izan nintzen urteetan (1978-1991) ezagutu nituen euskaltzaleak, zein gizon eta emakume zein gune, bururatu zitzaizkidan.

Erandiotik hasi behar. Korrikari laguntzeko ahaleginetan buru-belarri dabiltzanak, eta euskararekin bat egiten duten enpresak, tabernak eta taldeak.

Loiuri dagokionez, Lauroeta auzoa aipatu behar. Euskararen alde zein herri-

gintzako beste edozein alorretan han aurkituko ditugun militante nekaezinak, eta auzoko jatetxea. Baita Mikel Zarate idazleak informantetzat zituen gizon jatorrak ere.

Aitortu behar dut Sondikan, Derion, Zamudion eta Lezaman jende gutxi eza gutzen dudala. Baina Sondikan aspalditik ezagutzen dut herri osoa ohoratzeko bera bakar-bakarrik nahiko den emakumea: Belen Gana. Eta badakit ere Derion Tximintx taldekoak dabiltzala; eta Lagatzu elkartekoak, Zamudion. Lezaman, Zorritzketan taldea aipatu behar.

Eta azkenik, Larrabetzu. Uriko euskaltzaleek eta horiek eratutako talde eta ekimenek ez dute laudoriorik behar.

Eskerrik asko, Txorierriko euskaltzaleok; eskerrik asko, **AIKOR!**

Martin Orbe

*Oharra: gutun osoa aikor.com webgunean dago irakurgai

Eskerrik asko, Amagoia

Ez dut gogoratzen Amagoia noiztik zegoen liburutegian. Baina gogoratzen dut urtarilaren 26an liburutegia itxita ikusteak harritu egin ninduela. Hurrengo egunean hala esan zidaten: "Ez dakizu Amagoiak liburutegia utzi duela?". Ba ez, ez nekien ezer; momentu horretan pena handia sentitu nuen.

Azken urteotan askotan joan naiz liburutegira, eta bera izan da erreferentea guretzat. Beti zebiltzan kezkatuta gure beharrezanekin: ez bazegoen libururen bat, beste herri bateko liburutegian bilatzen zuen; zuk eskatutako liburua apuntatu eta libre zegoenean, telefonoz deitzen zizun. Umeekin ere izugarritzko lana egin du, izan ere makina bat ekintza antolatu ditu eurengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko. Gainera, euren saila marrazki eta kolore biziz apaintzen zuen, erakargarriago egiteko. Eta bisita amaieran... beti zegoen puxika bat.

Pena ematen du pentsatzeak Udalak ez duela ikusi zelako balorea galdu dugun. Profesional peto-petoa da Amagoia. Lan hori edonork egingo du, baina zuk eman diguzuna lana baino zerbait gehiago izan da. Eskerrik asko nire izenean; eta ziur nago, zamudioztar askoren izenean ere bai. Etorkizunak zu ere jarriko zaitu zure lekuan. Ordura arte, zorte on izan.

Ainhoa Bilbao



Txorierrin 25 edukiontzi jarriko dira olio erabilia biltzeko

Etzeko olio erabilia biltzeko sistema hobetu egingo da Txorierrin, eta, horretarako, 25 edukiontzi laranja baino gehiago jarriko dira martxotik aurrera gure herrietan. Biztanleek aukera izango dute eguneko edozein ordutan olio edukiontzietara botatzeko, eta ez dute bilketa-egunari adi egon beharko. Olio birziklatzeko, hura hozten utzi behar da, eta ontzi batean gorde. Ontzia plastikozkoa bada, hobe. Ondo itxita dagoela egiaztatu ondoren, edukiontzi laranja bota behar da. Biztanleen jokabideak izugarritzko garrantzia du birziklatze-katean. Izan ere, olio oso hondakin kutsagarria da, eta jaki egokia arratoientzat. Gainera, zaildu egiten du hondakin uren arazketa. Hala ere, birziklatzen erraza den hondakina da olio, eta hainbat erabilera ditu: esaterako, biodiesela, ohiko erregaia baino gutxiago kutsatzen duena.

Olio 2006ko urtarrilean hasi zen biltzen Txorierrin. Bilketa hilabeteetan behin egiten zen garai hartan, eta alde zuretik jakinarazitako ordutegi eta tokietan. Emaitzek itxaropenik onenak ere gainditu zituzten: 2006an, 4.591 kg batu ziren; 2007an,



5.395 kg; eta 2008an, 4.860 kg. Espero da sistema berri honekin gora egin egingo duela bildutako hondakinen kopuruak, eta, ondorioz, honeto zainduko dela ingurumena.

Herriko igerilekuan bainatuko dira derioztarrak 2010eko udan

Derioko Udalak igerileku estali gabeak eraikiko ditu herrian. Eraikitze lanak udaberrian hasiko dira, eta 2010. urteko udan amaituta egotea espero dute.

Proiektua fase bitan eramango dute aurrera. Lehenengo faseko presupuestoa onartuta dago eta 900.000 euro ingurukoa da. Hiru igerileku egingo dira: handienak 25 metro luze eta 18 metro zabal izango ditu; bigarrenak sakonera txikiagoa edukiko du; eta hirugarrena umeen beharri-zanetara egongo da egokitua. Horrezaz gainera, 3.000 metro karratuko berdegunea, harrera-lekua, aldagelak eta kafetegia atonduko dira. Igerilekuak Uribe Parkean egingo dituzte.

1.447 kilo elikagai, Saharara

Abendutik urtarrilera bitartean janari bilketa egin da Txorierrin, Tindufeko kanpamentuan bizi diren errefuxiatu sahararrei agintzeko. Guztira, 1.447 kilo elikagai batu dira: 43 kilo, Loiu; 231 kilo, Derion; 300 kilo, Zamudion; 230 kilo, Lezaman; eta 643 kilo, Larrabetzun. Batu diren jakien artean, lekaleak, arroza, atuna eta olio izan dira, besteak beste. Konpresa-paketeak ere bildu dira.

OPTIKA IKUSLAN

Ikuslan optikaren zentroa
Kontaktuko lentesak
Egurrezko kontaktuko lentesak
Lentzen garbiketa

Oreka, 1.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

TALESER JUAN ANDRES

ENTRENEJADOR DEPORTIVO EN BALONCESTO
FUTBOL JATZEN

ENTRENEJADOR DE BALONCESTO EN LA DIVISION
DE FUTBOL JATZEN

LOHITZUN

Barra

Barra de Lohitzun, 14.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

BAR BIDE-BI

Barra de Bide-Bi
Barra de Bide-Bi
Barra de Bide-Bi

Barra de Bide-Bi, 14.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

BIDE GORRI

Barra de Bide Gorri
Barra de Bide Gorri
Barra de Bide Gorri

Barra de Bide Gorri, 14.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

LOHITZUN

Barra de Lohitzun
Barra de Lohitzun
Barra de Lohitzun

Barra de Lohitzun, 14.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

BAR TXIKI

Barra de Txiki
Barra de Txiki
Barra de Txiki

Barra de Txiki, 14.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

ZAMUDION MOTOR

Barra de Zamudion Motor
Barra de Zamudion Motor
Barra de Zamudion Motor

Barra de Zamudion Motor, 14.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

ESTILISTA EVA ARDINES

Barra de Estilista Eva Ardines
Barra de Estilista Eva Ardines
Barra de Estilista Eva Ardines

Barra de Estilista Eva Ardines, 14.440 14 400 24 25 (ZAMUDION)

Ekitaldi sorta zabala, Emakumearen Eguna ospatzeko

Katixa Agirre. Argazkia: Juantxo Egaña



Martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna izango da eta Txorierrin handitasunez ospatuko dugu. Martxoaren 6an, 20:00etan, *Las Gallegas* antzezlan eskainiko da Sondikako Kultura Etxean, eta Derio, Zamudio eta Lezamako Udalek autobusa jarriko dute bertara joateko.

Derion 25 urte... eta ikasten hitzaldia emango du M^a Elena Ayarza Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate Saileko zuzendariak. Hitzaldia martxoaren 3an, 17:00etan, izango da Larrabarri baserrian. Hilaren 7an, 19.30ean, *Las chicas del calendario* zine-foruma edukiko dute Gurea Aretoan, Garbiñe Etxebarria psikologoaren eskutik; eta hurrengo egunean, 12:30ean, kontzentrazioa egingo dute Euskalerrria kalean. Ikastaroak ere antolatuko dituzte. Martxotik ekainera bitartean ama izatearen gorabeheren gaineko ikastaroa egingo da; eta martxoaren 14an eta apirilaren 4an, defentsa pertsonala ikastaroa Doyan gimnasioan.

Zamudion martxoaren 5ean egingo dute ekitaldi nagusia. Zamudiotarren, arratsaldeko 10:30etik aurrera, Kamara Korallaren emanaldia egongo da eta horren oste-

an, *La flor de Banarte* obra eskainiko da. Lagatzu euskara elkarteak *Emakumea eta Artea*, koadroak begiratzuz saioa antolatu du hilaren 9rako. Saioa 20:00etan izango da Zamudiotarren eta bertan Iker Landeta artean aditua arituko da hizlari.

Beste alde batetik, Patricia Verdes abokatuak emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko hitzaldia emango du martxoaren 2an, 19:00etan, Lezamako Kultura Aretoan. Eta Laiak emakumeen elkartetik sortutako Ausartak antzerki taldeak *Onna* lana eskainiko du hilaren 8an, 20:00etan. Ekitaldi hau ere izango da Kultura Aretoan.

Eta urira ailegatu gara. Katixa Agirre idazleak *Habitat* liburua aurkeztuko du martxoaren 5ean, 20:00etan, Anguleri Larrabetzuko Kultura Etxean. Hilaren 7an, 18:00etan, *Jennyren lau arrazoi* bakarriketa izango da Kultura Etxean, eta hilaren 26an eta 27an erlaxazio tailerra egingo dute eskolako gimnasioan. Azkenik, hilaren 16tik 31ra bitartean *Emakumeak lanean* argazki erakusketa jarriko da ikusgai Kultura Etxean.

Maskotentzako mozorro lehiaketa, Sondikan

Sondikako Udalak "Jar zaitez nire lekuan" kanpaina jarri du abian. Kanpainak espazio publikoetan pertsonen eta maskoten arteko elkarbizitza hobetzea du helburu. Udalak Inauteriak aprobetxatuko ditu egitasmoaren mezua zabaltzeko.

Kanpainaren ekintzarik erakargarriena Maskotentzako I. Mozorro Lehiaketa izango da. Lehiaketa otsailaren 28an egingo dute arratsaldeko 7etan eta hiru sari banatuko dira: 2x1 (maskota eta jabea gai berberaz mozturatu beharko dira); mozturorik onena duen maskota; eta garrantzitsuena parte hartzea da. Sariok Sondikako Albaitaritza Klinikak emango ditu.

Beste alde batetik, Udalak 3.000 poltsa banatuko ditu herritarren artean, eta barruan maskara bat, gorotzak jasotzeko poltsa bereziak eta kanpainaren zein maskotentzako mozturro lehiaketaren inguruko informazioa egongo da. Era berean, informazioa banatuko da etxeko postontzietan, eta gorotzak jasotzeko beste 2.000 poltsa jarriko dira eskuragai liburutegian, ludotekan eta kiroldegian. Informazio zehatzagoa www.nirelekuan.org webgunean dago.

400 zuhaitzetik gora landatuko dituzte Lezaman

Martxoaren 15ean, domekaz, Zuhaitz Eguna ospatuko dute Lezaman. Goizeko 11etan plazatik irten eta guardiaren etxeraino abiatuko dira. Bertatik hurbil dagoen lursail batean 450 zuhaitz landatuko dituzte: hari-tzak, lizarrak, astigarrak eta urkiak, besteak beste. Zuhaitzak landatu ostean Sasimartxo egingo dute, eta parte-hartzaile guztiei hamaiketako eskainiko zaie.

Beste alde batetik, zuhaitzen garrantziaren gaineko erakusketa egongo da umeei zuzenduta. Era berean, marrazki lehiaketa, trebetasun-jokoak, eskulanak, musika eta puzgarriak antolatuko dituzte. Marrazki lehiaketan parte hartzen duten umeei diploma bana emango zaie.

Ekitaldiak, Sondikan

Sondikoztarrek ere ospatuko dute Zuhaitz Eguna martxoaren 8an. Hitzordua goizeko 9:30etan izango dute Goronda Gane eskolako aparkalekuan, eta handik San Roke landara joango dira zuhaitzak landatzera. Jokoak eta hamaiketako egingo dira, eta opariak ere banatuko dira. Izena ematea liburutegian egin behar da martxoaren 2tik 5era bitartean.

cianoplan sa
global printers

Lizentziatutako Inbentarioa 100 z/ft
481.01 / 100000
Teléfono: 94 491 71 77
info@cyanoplan.com

- Inbentarioa eta planoa logotipo.
- Barriadak, koloreak eta z/ft.
- Digitalizazioa eta berriraketa, automatikoa eta logotipoa.
- Barriadak, koloreak eta z/ft.
- Era desberdinekoak, koadroak, marrazkiak.
- Plastifikazioak.
- Era desberdinekoak.

Korrika Kulturala, Txorierrin

Korrikaren 16. edizioa martxoaren 6an aurkeztuko da Txorierrin. Ekitaldia arratsaldeko 8etan izango da Derioko Gurea Aretoan. Euskararen aldeko lasterketaren zehaztasunak azaltzeaz gainera, Bertoko taldearen emanaldia egongo da eta luncha eskainiko da. Baina ez da Korrikaren inguruan bailaran izango dugun ekitaldi bakarra. Elkartek eta taldeak buru belarri ibili dira lanean eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunotarako.

Martxoaren 12an, goizeko 10, 30ean, *Giriguay* saioa eskainiko die Zirko Ttipia taldeak eskoletako umeei Zamudioko kiroldegian; eta hilaren 27an korrika txikia egingo da Derion, eskoletako umeei eta institutuko gaztetxoei zuzenduta. Egun horretarako ere bertso-afaria antolatu dute Zamudion. Afaria gaueko 9etan egingo dute Zortzi jatetxean eta bertan Unai Iturriaga, Etxahun Lekue eta Igor Elortza bertsolariek hartuko dute parte.

Eta aurrera jarraituko dugu. Hilaren 28an, eguerdiko 2etan, herri bazkaria izango dute Sondikan, Taberna Ibiltaria-

ren abesti saioa eta guzti. Erandiok hartuko du lekukoa gauean, izan ere, herri afariaz gozatuko dute Altzaga ikastolan. Eta Lezaman ibilaldia egingo dute herriko bazterrak ezagutzeko. Aurregoiti Lau-roetako jatetxean herri afaria izango da apirilaren 3an.

Korrika apirilaren 4an pasatuko da Txorierritik. Hori goiz-goiz izango da: goizeko 8etan, hain zuzen ere. Pasa ostean, txokolatada eta hamaiketako eskainiko dira herri guztietan, korrikalariak indarrak berri ditzaten. Era berean, ume-entzako tailerrak, batukada eta kontzertuak egongo dira Derion goizeko 10etatik aurrera, eta eguerdiko 2:30ean herri bazkaria egingo dute Arteaga jatetxean. Larrabetzun ere herri bazkaria izango dute eskolan. Horren ondoren, kantak eta txapelketak izango dira eta gauez erromeria egingo dute Hori Bai gaztetxean.

Korrika apirilaren 5ean ailegatuko da Gasteizera eta han jaialdi erraldoia ospatuko da. Txorierritik autobus bat aterako da goizeko 10:30ean.



Zirko Ttipia taldea

Merceria Carmele

Merceria Carmele, S.L. - 01001 - 94 422 10 40

LEANDRO LANDETA

PARAGITEGIA-ORDAITEGIA

01001 - 94 422 10 40 - 42 700 41 11

HORTZ KLINIKA

Klinika Zeltokia

01001 - 94 422 10 40 - 42 700 41 11

GUTRIAN

WETTERMAN-DEPORTIVA, S.L.

01001 - 94 422 10 40 - 42 700 41 11

Garmendia ardoak

01001 - 94 422 10 40 - 42 700 41 11

OBRAS Y REFORMAS

Gorrotxa

01001 - 94 422 10 40 - 42 700 41 11



ANKAPALA

01001 - 94 422 10 40 - 42 700 41 11



EMANBOTOA

UNAI ZIARRETA
INDEPENDENTEA

LEHENDAKARI HAUTAGAIJA CANDIDATO A LEHENDAKARI



Kirmen Uribe, idazlea

**“Neuk nahi
nuen liburua
idatzi dut”**

Idazle euskaldun ospetsuenetarikoa da Kirmen Uribe (Ondarru, 1970), eta "Bilbao-New York-Bilbao" bere lehendabiziko nobela plazaratu berri du. Urtarrilean Larrabetzun aurkeztu zuen liburua, Arrekikili euskara elkartearen eskutik, eta berarekin hitz egiteko aukera izan genuen.

Testua: Gaizka Eguskiza / Argazkia: Zaloa Fuertes



Larrabetzun aurkeztu duzu liburua. Zelan?
Ondo. Gotzon Barandiaran aspaldiko adiskideak gonbidatu ninduen eta jendea bildu zen. Gehienek liburua irakurrita zuten, eta iritziak partekatu genituen. Liburuan gai asko jorratzen dira, eta parte-hartzaile bakoitzak ikuspuntu ezberdin bat aipatu zuen. Oso interesgarria izan zen.

Bilbao-New York-Bilbao du izena liburua. Zergatik New York?

Liburuko gogoeta nagusietako bat euskal kultura da eta hori gaur egun bizi dugun globalizazio garaian kokatu dut. Bilbaok Euskal Herria islatzen du; eta New Yorkek, aldiz, mundua. Gainera, partikularretik unibertsaltasunera, eta unibertsaltasunetik partikularrera, egiten den bidaia ere azaltzen du izenburuak.

Sudoku moduan kontatu omen duzu istorioa. Zailagoa zuretzat ala irakurlearentzat?

Nahiz eta ohiko nobela ez izan, irakurleek erraz irakurtzen dutela uste dut. Dena den, azpian izugarritzko lana dago. Sudoku edo gurutzegrama baten moduan idatzi dut, egia da, hainbat atal daude, eta elkarrizketak, gainera. Istorio nagusiaz aparte, beste ondoko batzuk ere badaude irakurgai. Nire ustez polita da, sudoku bat egiten denean dibertigarria baita. Sudoku zenbakiak asmatu egin behar dira, eta nire liburuan irakurleak kontatzen ez den hori ere asmatu behar du.

Nobela bera idazteko prozesu osoaren berri eman duzu nobelan. Trukuak jakinarazten dituen magoa bezalakoa zara, ala?

Normalean ez, baina nobela honekin egin dut. Izan ere, ez nuen nahi jendeak sorpresa handiegi hartzea.

Aspaldian zara idazlea. Ez dugu gehiegi itxaron behar lehenengo nobela irakurri ahal izateko?

Ez, ez dut uste. Nire ibilbidea oso lasaia izan da. Hogeita hamar urterekin argitaratu nuen olerki liburua eta denbora luzez ibili nintzen prestatzen. Halaber, lehenengo nobela 38 urte ditudala etorri da. Oraindik gaztea naiz, eta kanpoko idazleek ere denbora luzea ematen dute liburua pentsatzeko, hura idatzi baino lehen; horiek oso liburu gutxi argitaratzen dute. Euskal Herrian, aldiz, gaztea izanda ere, liburuak eta liburuak plazaratzen dira. Niretzat ez zait hori gustatzen; nik liburua sakonago landu nahiago dut, eta behar dudana denbora hartu.

Ikusmin handia zegoen zure liburuarekin.

“Sudoku zenbakiak asmatu egin behar dira; nire liburuan kontatzen ez den hori asmatu egin behar da”

“Lantegian lan egiten dutenek badute presioa; nik barre egiten dut irakurleek eragindako presioarekin”

Horren aurrean, presiorik nabaritu duzu?

Oso pozik nago neuk nahi nuen nobela idatzi dudalako. Ez diot nire buruari iruzur egin eta horixe da inportanteena: azkenean, liburuak koherentea izan behar du, eta idazleak ere bai. Nire kezka literarioak asebetetzen dituen liburua da eta hortik jo dut. Ez nuen gauza erraza egin nahi. Ni gustura nabil eta, liburua zenbat saltzen dabiliztan ikusita, irakurleak ere bai. Presiorik? Guztioz dugu. Nire lagunek lantegietan egiten dute lan eta horiek ere presioa itzela dute, kaleratzeko zorian baitaude. Nik barre egiten dut irakurleek eragindako presioarekin. **Zure liburuak beste hizkuntz batzuetara itzuli dira: frantsesera, gaztelaniara eta ingelesera. Zer deritzozu itzulpenari? Ez duzu uste ñabardurak galtzen direnik?** Bai, galdu egiten da, baina pozik nago itzulpenekin. Itzulpenak berridazketak dira, azken batean. Eta hizkuntza bakoitzak bere musikaltasuna du. Hori topatu eta testua doinu horretara egokitu behar du itzultzaileak. Orain arte oso harreman ona izan dut itzultzaileekin, eta ni eta nire mundua gertutik eza-gutu gaituzte. Pozik nago olerkietan egin duten lanarekin.

Denetarik idatzi duzu: gazteentzat, olerkiak, orain nobe-

la... Zein nahiago duzu?

Ni idazlea naiz, eta idazleak denetarik egin behar du. Musikari batek kanta bat eta gero sinfonia egin dezakeen moduan. Orain arte oso gustura sentitu naiz poesian, baina nobela idazten ere primeran ibili naiz. Esfortzu handia egin dut eta disfrutatu egin dut.


Idazlea eta kazetaria, ezta? Izan ere, hamar urte daroazu zutabeak idazten egunkarietan. Zer eragina izan dute horiek zure idazteko eran?

Oso eskertuta nago zutabeei. Zutabeak nire koadernoak izango balira bezala dira. Ikusi, sentitu edo pentsatzen dudana, nire kezak eta irakurketak jarri ditut bertan, hau da, mundua ikusteko nire begiradaxoa. Eragin handia izan du nigan, zutabeak irakurtzen duenak badaki nondik nora noan. Nik neuk ere asko ikasi dut zutabeak idazten. Bere inperfekzio guztiekin, asko gustatzen zait “zutabegintza”.

Eta etorkizunari begira, zer duzu buruan?

Momentu honetan gauzak patxadaz hartzen nabil. Ez dut proiektu handietan sartu nahi.

Liburu batetik bestera jauzia egon behar da. Liburu honekin ere ahalegindu naiz gauza desberdinen bat egiten. Hurrengo ere desberdina izatea nahiko nuke, eta orain idatziko banu antzekoa izango litzatekeela uste dut. Orain irakurri eta pentsatu egingo dut, eta gero gerokoa!



MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA

Sakabide eta bainageletako harriak
fatxadak, atariak eta hilerriak.

Torre-Lanagaitz bidea, 10. 100 - oinarri 2
48170 ZAMUDIOA (BIZKAIA)
Tall. Fax: 94 608 01 41 - 2

QAP ASKE
Askeko Baitako Produktuak

Osasun, Lurralde, 10.000 Baitako
Tel. 94 471 02 01 - 07 1 00 00 00
www.askeko-baita.com

Luzapenak Baitazkia

Fitxak, liburuak, dokumentuak, argazkiak,
bideoak, irudiak, musika, irudiak, irudiak,
irudiak, irudiak, irudiak, irudiak, irudiak, irudiak

**Garaiak, 120 C - 48104 Leizor,
945 67 41 45 - 945 95 28 91**

Joanes Camara, pelotaria

“Pelota gustetan jat, euskal kirola dalako, bertokoa”

Harrobi oparoa dogu Txorierrin, izan be, gure pelotariak garaipen garrantzitsuak lortu dabez urteotan. Azkenetarikoa Joanes Camara izan da. Lezamako Pelota Eskolako gazteak Uribe Kostako Txapelketea irabazi barri dau gazte mailan, bikotea Zeanuriko Julen Iturbe ebala. Finala Bermeoren kontra jokatu eben Urdulizen.

Lehenengo txapela izan da zuretzat, zer ekarri deutsu?

Poztasun haundia. Aparteko pelotaria ez izan arren, txapelen bat lortuteko maila badodala uste dot. Eta hau oso inportantea izan da, lehenengoa dalako.

Itxaroten zenduen?

Egia esan, bai. Julen eta biok 16 urte doguz eta adinagaitik, gazte mailako lehenengo urteko pelotariak gara. Bizkaiko Txapelketearen orde, Uribe Kostakoa jokatzeko proposamena egin euskuen. Gaztegiak ginalako, Bizkaikoan ibilteko; eta Uribe Kostakoan aukera gehiago eukiko genduzalako.

Baietz esan eta erraz irabazi doguz partidu guztiak. Aurkakoek ez eben 11 tanto baino gehiagorik lortu.

Faboritoak zinien eta aurreikuspenak bete zenduezan. Presio gitxiko finala izango zan, ezta?

Ez horixe! Irabazteko obligazioa genduan neurri

baten, eta partidua galduz gero, pelotan jokatzeari itxiko geuntsala esaten genduan txantxetan. Ganera, harmailak jentez gainezka egozan eta beti deusazu bildur barregarri lotuteari. Baina partida hasi eta atoa lasaitu ginan. Ondo urten zan dana eta pozik gagoz.

Bikoteagaz harreman ona izatea be lagunduten dau...

Oso ondo moldatuten naz Julenegaz. Aurreko bikotea hobea zan, baina Julenegaz dodan harremana ez neban beragaz. Lagun haundiak gara, eta horrek eragina dau frontoian be bai.

Zelan ikusi dozu torneoaren maila?

Orokorrean ez dogu zailtasun haundirik euki irabazteko; halanda be, partidu txarren bat be jokatu egin dogu. Eta beharrak emon deuskuez...

Zein izan da gogorrena?

Getxoren kontra Larrabetzun jokatzeko finalerdia. Hasieran nahiko parekatuta ibili ginan, baina gure gustuko pelota aukeratu eta 10 tanto egin genduzan jarraian.

Eta orain?

Udaberri Txapelketea gabilz jolastuten. Partida bi jokatu eta biak galdu egin doguz. Beste pelotariak nagusiagoak dira, eta guk baino maila altuagoa dabe.

“Partidua galduz gero, pelotan jokatzeari itxiko geuntsala esaten genduan txantxetan”

Baina gustura gagoz, ikasten eta gure ibilbidea apur bat zuzenduten. Txapelketea ez dogu irabaziko, baina maila erakutsiko dogu behintzat.

Zelan hasi zinan pelota munduan?

Hamaika urte inguru nebazala sartu nintzan. Lagunak pelotan olgau eben eta ni be animatu nintzan. Koadrilako pelotari bakarra naz gaur egun...

Zerk erakartzen zaitu kirol horretatik?

Oso pelotazalea naz eta profesional mailako partidua eta jarraituten dodaz. Monitore be banabil Derioko Pelota Eskolan. Pelota mundua da gehien gustetan jatana, euskal kirola dalako, bertokoa...

Arretaz jarraituko deusazu Binakako Txapelketeari...

Bai. Faboritoak Olaizola eta Mendizabal dira, baina Irujok eta Goñik irabaztea gura go dot. Irujo nire pelotaririk kutunena da, bere jokoa gustetan jat.

Zu be inoiz profesionala izateko itxaropenik?

Gustatuko litxakit, baina ni baino pelotari hobeak dagoz eta gatx ikusten dot. Momentuz gustura nago nire mailan.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

OSASUNEZ, PISUA GALTZEKO METODOA

60% N BOKERIA ITA DITTORIOA UNIVERSITATTAN DIR ONITIAK (ITALI) HIRIBAT LUTITAN DOTTORATU

beltary

Esfortuak izatea, hau,

IZUTEN GEROKORRI OZILUN OZALTE

PERSONALIZATUA, ERAGINKORTA, SEKURUA, ...

LEJARRERNE JAKITAKIA

LEJARRERNE JAKITAKIA

LEJARRERNE JAKITAKIA

BOZKATU



Yba pre txe



ORAIN INOIZ
BAINO GEHIAGO

Eguzki-energian ik zentroa zabaldu da T



Testua: Unai Ugalde

Nekane Azkona eta Aloña Otaegi, TMiko ikerlariak

“Eguzkia ezagutuko ote dute bilobek?”

Inguru egokia da Zamudioko Teknologia Parkea ikerketan jarduteko? Zer gehitu edo kenduko zeniokete?



KING
OF THE HILL

ELI ANDERSON, JORDAN LARSEN

Commentary: *at 1st 4th 7th 10th 13th 16th 19th 22nd 25th 28th 31st 34th 37th 40th 43rd 46th 49th 52nd 55th 58th 61st 64th 67th 70th 73rd 76th 79th 82nd 85th 88th 91st 94th 97th 100th*

direct means (forward)

G

Il nostro cinema è aperto tutti i giorni
dalla sera alle 20.00.

CINEMA

Venite! C'è film
Tutte le sere 7 e 9
www.cinematheque.ch
e al 04 82 66 66 66

coiko
TABERNA

*Lebensmittel, Getränke
für jeden*

• **Lebensmittel**
 • **Getränke**
 • **Lebensmittel**

• **Getränke**
 • **Lebensmittel**
 • **Getränke**

ET Berlin • **ET Berlin** • **ET Berlin** • **ET Berlin** • **ET Berlin**

ertzeko xorierrin

duna bera ere) berba batzuk bota zituen, honelako jardunguneek duten garrantzia azpimarratuz.

Ondoren, laborategiaren barrenetan ibiltzeko aukera izan genuen. Adituen azalpenez lagunduta, bertatik bertara egiaztatu ahal izan genuen goi-teknologiako tresneria txukuna daukatela benetan, inguruko (eta urrutiko) unibertsitate askok eurentzat gurako luketena. Izan ere, zelula fotovoltaikoen oinarri diren siliziolatak sano mengelak dira; eta eurekin egin beharreko lanak, fin-finak. Ondorioz, prozesatzeko, manipulatzeko, neurtzeko... tresna egokiak eduki ezean, alferrik dira ahalegin guztiak. Alde guztietatik zorionekotzat jo behar dugu izaera honetako langune batek bere egoitza Txorierrin aukeratu izana.

Zer da eguzki-energia fotovoltaikoa?

Eguzkitiko argia elektrizitate bihur daiteke zuzen-zuzenean, *efektu fotovoltaiko* deritzon gertaera fisikoaz baliatuz. Nork ez ditu ikusi, etxe-teilatueta zein soloartean, zirkinik egin barik, zeruari begira dauden panel urdinxkak? Bada, hurretik erreparatuz gero, 30-40 laukitxo osatuta daudela ikusiko dugu: horiexek dira zelula fotovoltaikoak.

Instalazioei dagokienez, mota nagusi bi daude: argindar sarera konektatutakoak eta konektatu gabekoak (edo autonomoak). Sarera konektatukoetan, esate baterako, nahitaezkoak dira inbertsoreak, DC-AC bihurketa burutzeko ekipu elektronikoak, zelulek ematen duten elektrizitatea zuzena (DC) izanik, sareak garraiatzen duena alfernoa (AC) delako.

Autonomoetan, ordea, inbertsorea

aukerakoa da, baina energia gordetzeko moduren bat eduki behar dute (berun-azidoko bateriak, gehienbat) egunez jasotzen den elektrizitatea gorde eta gauez kontsumitu ahal izateko, ez dago-eta inongo sararekin energia trukatzetik.

Hala ere, badago salbuespen aipagarri oso zabaldua: lurrazpiko ura (edatekoa) azaleratzeko motoponpak elikatzea. Horrelakoetan, elektrizitatea barik uraren energia potentziala metatzen da: eguzkiak jo ahala ponpatzen da ura, eta biltegian gordetzen da, eskaria dagoeanean (egunez nahiz gauez) eskuragarri egon dadin.

*Oharra: **AIKOR!** aldizkarirentzat egokituta, Elhuyar Fundazioaren Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoan laster argitaratzekoa den artikulutik



“ Energia-iturri garbia, emankorra eta baliagarria dela frogatzen gabilta, petrolioaren nagusitasunari aurre egiteko gai dena ”

N: Ingurune polita da eta ahalbidetzen du laborategi handia izatea, hirigunean zaila dena. Baina Bilbon egoteak ere bazi-tuen abantailak: denetarik dago bertan eta tramite pertsonalen bat egin behar izanez gero, momentu bat galtzen zenuen eta ez goiz erdia, orain bezala. Autoa dutenek ez dute hainbeste nabarituko, beharbada. Baina Parkeak lotura txarra du nire ikus-puntutik, eta eskerrak orain zuzen datozen autobus gehiago jarri dituztela!


A: Oso toki egokia da ikertzeko. Labo-
rategia Bilbon genuen lehen. Ikerketaren

bat gaizki atera eta ideiak argitzeko aire freskoa behar zenuenean, laborategitik irten eta autoak eta hiria genituen aurrez aurre. Berton, aldiz, autoen zaratarik ez dago; eta bai, txorien txorrotxioa... eta berdea. Asko irabazi dugu. Hala ere, Bilborako garraio publikoa hobetuko nuke eta sukurtsal txikia jartzeko eskatuko nieke aurrezki-kutxei (nirea ez dago Parkean). Zerbait kendu? Ezer ere ez oraingoz.

Eguzkia inoiz amatatuko den izarra omen da... imajinatzen duzue eguzkirik gabeko Lurrik?

N: Inoiz amatatuko da, eta ordurako mundua ere guztiz hondatuta ez badugu... Ikusten dugun azken gauza izango da, beraz...

A: Ez dut eguzkirik gabeko Lurrik imajinatzen. Baina daramagun martxa honekin, ez dakit bilobek eguzkia ezagutuko duten! Ama Lurraren baliabideak ezereztan gabilta. Energia-fakturak gero eta handiagoak dira, baina hotz garenean berogailua pizten dugu jertsea jantzi beharrean. Herrialde txiroetakoek ez dute ezta jertserik ere.



multimedia
Realtek

L'azienda di sempre... per farla da oggi
Soluzioni Software® 2017 28 08

January **SAN ISIDRO**
ESKONTZAK, BATAJAK, MUMARTZAK
Esan artikulatua - Lantza artikulatua - Esan artikulatua
Antzerki Eskontzak (1000) - Eskontza eta 2 eskuntza
 Eskontza (1000) - Eskontza (1000)
 Eskontza (1000) - Eskontza (1000)

[illegible]

“Euskara galtzen bada, guztiok galtzen dugu”

Ondotxo ezagutzen dugu Txorierriko euskaltzaleok Belen. Emakume hau duela 57 urte jaio zen Sondikan, baina txorierritartzat du bere burua: Loiun Derion bezain gustura sentitzen da, eta Zamudion, Lezaman, Larrabetzun... Oso gaztetxo zela hasi zen lanean euskara arloan, eta berak hainbesterako ez dela esan arren, Txepetxa AEK euskaltegiaren arima da.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Gure artean, nor da Belen?

Euskararen alde lan egin behar zela gazte-gazterik ikusi zuen pertsona. Francoren garaiak ziren eta eskolan dena ematen genuen erdaraz. Gainera, kalean euskaraz egiten bazenuen, “aldeana” esaten zizuten, eta ondorioz, erdarara jotzen genuen lagunok. Baina gurasoek kontzientziario handia zuten euskararen inguruan eta etxean euskara hutsean egiten genuen. Ama hizkuntza galtzeko arriskuan geundela konturatu ginen: ez genekien euskaraz irakurtzen, ez idazten... Eta egoera horri aurre egin behar geniola erabaki genuen.

Zelan?

Larrondon nenbilen ikasten eta abade gazte berria etorri zitzaigun, oso herrikoia eta euskaltzalea zena. Euskararen inguruan hainbat ekintza antolatzen animatu gintuen, antzerkia, abestiak eta dantza taldea esaterako, orduan hasi nintzen ni eskola ematen nik baino euskara gutxiago zekitenei. Giro polita sortu zen auzoan. Batzuk Herri Gaztedi mugimenduan sartu ginen, eta bileretatik euskara klaseak antolatzeko





urel
Psicología Social

1-800-88-0000

KONTAKU DUA

PRIMERA ENTENISTA

PRIMA ENTENISTA

HAURRAK - NERABEAK - MAGUSIAK - ZAHARRAK
berrazarpena, grafologia, etab. (partikular eta enpresarak)

NIÑOS - ADOLESCENTES - ADULTOS - MAYORES
diagnóstico, grafología, etc. (para particulares y empresas)

 **UreL on Google+**

 **UreL on Facebook**

 **UreL on Twitter**

Helbetea: 48907 Donostia (Gipuzkoa) E-48907-03 007 840 01 79 E-mail: urel@urel.es - info@urel.es

ALICANTE, 11-28003, 03004

91 61 61 61 / 91 61 61 61

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**

www.azurmendi.com



TELÉFONO 91 61 61 61

idea sortu zen. Garai korapilatsuak ziren eta bilerak erdi ezkutuan egiten genituen. Hala ere, Txorierriko I. Euskararen Eguna egitea lortu genuen seminarioan, eta eskal kutsua ematen ibiltzen ginen edozein ekitaldiri.

Euskarak bizirauteko prozesu horretan, alfabetatzea zen hurrengo pausua.

Alfabetatze kurtsoa Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean egin genuen, eta irakaslea Xabier Oleaga izan zen. Hamasei urte nituen garai hartan, eta oso ondo gogoratzen dut landu genuen lehenengo liburua: *Itsasoak ez du esperantzarik*. Euskara mantentzeko beharra herritarrei jakinarazi behar genielako pentsatu genuen, eta horretarako, gau-eskolak jarri genituen martxan.

Zelan antolatatu zenituzten?

Kanpaina txiki bat egin, eta lagun zein inguruko euskaltzale askok bat egin zuen proiektuarekin. Horietako asko euskara elkarreetan daude gaur egun. Abadeen laguntza ere izan genuen. Gau eskolak herri guztietan hasi ginen ematen, eta herri

“Ondo gogoratzen dut landu genuen euskarazko lehenengo liburua: *“Itsasoak ez du esperantzarik”*”

bakoitzean talde bat baino gehiago sortu zen. Eskola elizetako lokaletan ematen genuen gehien bat.

Sindikatu mundura ere sartu zinen buru-belarri...

Dunlop lantegian egiten nuen lan, eta langileen arazoez arduratzen hasi nintzen. LAB sindikatua sortzeko prozesuan hartu nuen parte. Baina ez nuen inoiz euskara albo batera utzi. Akordio batera ailegatu ginen enpresarekin, eta euskara eskola lantegian bertan hasi ginen ematen. Talde bi nituen: bata, bazkaltzeko orduan; eta bestea, lan-ordutegitik kanpo. Lantegian amaitu eta Deriora joaten nintzen, gau-eskola ematera.

Trantsizio urteak ziren, zelan gogoratzen dituzu?

Zoratzeko moduko garaiak baziren ere,

“Aliatuak behar ditugu emakumeok”

Irakaslea eta euskaltegiaren arduraduna izateaz gainera, ama ere bada, emaztea, alaba... Emakumearen Nazioarteko Eguna laster izango da, eta galdetu behar.

Ardura asko izan ditu antzinako emakumeak; eta ardura gehiegi ditu gaur egungoak...


Emakumeok gure gain gizonak baino ardura gehiago hartzeko gauza gara, eta ez dakit izaera kontua izango den. Errepresioa jaso dugu eta bizkortu behar izan dugu. Oso indar handia dugula erakutsi dugu, eta edozein oztopori aurre egiteko gauza garela. Dena dela, Emakumearen Eguna ospatzen dugunean, ezin dugu ahaztu gaur egun gauden lekuan izatea guk baino lehenago borrokatu duten emakumeei zor diegula, eta askok bizitza ere galdu dutela borroka horretan. Emakumeen izaera eta eskubideak zabaltzeko egiten den edozein ahalegin oso inportantea da, baita txikiena ere.

Lana eta familia uztartu behar; lan zailena da hori, ziur asko.

Ohetik altxatu eta burua leku askotan izan behar da: seme-alabak, lana, bazkaria, etxea... eta aliatuak topatzea ezinbesteko dugu. Etxean eta kalean talde-lana oso garrantzitsua da; ez badago, akabo.

Lengoaia matxista da askotan eta euskara salbuespena ez dela diote (gizartearen orde, adibidez, jendartea erabiltzeko proposamena egin da). Ados?

Hitz batzuk egon egongo dira, baina ez dut uste euskara matxista denik orokorrean. Adibide horrekin jarraitzearen, gizaki hitza koiuntura baten ondorioa dela esango nuke, baina ez koiuntura matxista batena. Guk gizon hitza erabiltzen dugu, emakume, gurasoak, aita-ama... eta hori ez da matxista, bakoitzari berea ematea baizik. Gainera, ez dugu ahaztu behar matriarkatu batetik gatozela, eta eredu berdintsu batetik.



Ongi etorri euskarara



Korrikaren 16. edizioa apirilaren 4an pasatuko da Txorierritik. Aurkezpen ofiziala martxoaren 6an egingo dute Derion.

Euskararen aldeko hainbat kultura ekitaldik osatzen duten kultura ekitaldi erraldoia da Korrika, eta engranaje hori guztia martxan jartzea ez da egun batean egin daiteken lana. AEK-ko arduradunak buru belarri dabilta hona eta hara deika, taldeak antolatzen, ekintzak prestatzen... Herrietako elkarteak, lagunen, boluntarioen eta euskaltzaleen laguntza ezinbesteko dute lan horretan. "Eurek

“Ezin da hitzez azaldu zer den euskararen lekukoa eskuz esku pasatzea; bizi egin behar da”

barik, ezin izango genuke Korrika aurrera atera”. Kultura bizitza handiko eskualdea da Txorierra, baina hori askoz biziagoa izango da datozen hilabete bie-

tan. Antzerkiak antolatuko dira, bertso-afariak, hitzaldiak, korrika txikiak... “Horiei ere omenaldia egitea pentsatu beharko genuke inoiz”.

Aurtengo Korrikak Tuteratik Gasteizera arte zabalduko du euskararen mezua eta aurtengo ediziorako lelo hau aukeratu da: *Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira*. Belenen esanetan, bete-betean asmatu dute. “Ongi etorria euskara mundura etorri diren kanpotarrei ez ezik, euskara galdu eta berreskuratu duten hainbat euskalduni ere ematen diegu euskaldunok. Oso mezu polita da, eta garrantzitsua. Pozik eta abegikor bizi behar dugu euskararekin”.

Eta hala adierazten dute urte birik behin euskararen aldeko lasterketan parte hartzen duten ehunaka txorierritarrek. Oso ekintza arrakastatsua izaten da gurean, eta herritar gehienek babesa du. “Ezin da hitzez azaldu zer den euskararen lekukoa eskuz esku pasatzea. Oso esanahi sinbolikoa du, eta bizi egin behar da hura ulertzeko”. Hainbat urtetan Korrika antolatzen ibili, eta lekukoa duela urte bi eraman zuen Belenek lehenengo aldiz. Herriak merezitako omenaldia egin zion. “Ekitaldi xumea izan zen, baina hain handia! Txorierritarrek urteetan egindako beharra eskertu zidaten eta egia esan, nik ez dakit nola eskertu eurei omenaldi hori. Sekula ezin izango dut behar beste eskertu”.

Belenek ongi etorria ematen die euskara mundura, “gure etxera”, etortzen diren guztiei, eta euskaraz bizi eta disfrutatzea gonbidatzen ditu. “Euskararen testigua ezin delako galdu”.

elekma
IMAGINATU DUEN FOTOGRAFIAK ERABILI

Behar duzu erabiltzeko? **ERABILI ERABILI ERABILI**

Garraioa: 100% 100% 100% 100%

ERABILI ERABILI ERABILI

ERABILI ERABILI ERABILI

Behar duzu erabiltzeko? **ERABILI ERABILI ERABILI**

Garraioa: 100% 100% 100% 100%

ERABILI ERABILI ERABILI

ERABILI ERABILI ERABILI

Behar duzu erabiltzeko? **ERABILI ERABILI ERABILI**

Garraioa: 100% 100% 100% 100%

ERABILI ERABILI ERABILI

oso politik izan zirela uste dut. Ama haserre zebilen gurekin baserrian lana zegoelako, eta guk egun osoa etxetik kanpo ematen genuelako. Baina aitak beti defendatu egin gintuen, bera ere sindikatu munduan zegoelako sartuta. Oso barregarria zen: alfer hutsak ginela esaten zuen amak, eta gu leku batetik bestera ibiltzen ginen jo ta ke: euskara, alderdi politikoak, sindikatuak... Franco hil zen, borondate handia genuen eta lan asko zegoen egiteko.

AEK-k lekukoa hartu zien gau-eskolei 80ko hamarkadan.


Gau-eskolak borondatez ematen genituen, baina horiek arautzeko beharra ikusi genuen. Izan ere, irakasle genbiltzanok mila saltsetan geunden sartuta, eta horrezaz aparte, noski, bizitza pertsonala ere bage-nuen. Txorierriar batzuk Euskaltzaindiarekin bildu eta euskara klaseak beste modu batean antolatzen hasi ginen: dirua hasi zen kobratzen eta ikasteko metodologia lantzen, besteak beste. Korrika 1980. urtean antolatu zen lehenengo aldiz, eta Txepetxa euskaltegia laugarren Korrikan bildutako diruarekin sortu genuen. Denborak aurrera egin ahala profesionalizatu egin ginen irakasleok.

Zelango bilakaera izan du 15 urteko eus-kara militante hark?

Egoerak aldatu egin dira, baina ni ez: orain dela 40 urteko helburu bera dut. Lan munda-ak jarraitzen nau kezkatzen, eta horren alde ahal dudana guztia egiten jarraituko dut. Hala ere, dedikazio osoa euskarari eskaintzen diot gaur egun, izan ere, euskara lan eta afizioa dut. Beti nago prest euskararen inguruko edozein iniziatiba bultzatzeko, eta laguntzeko. Euskararen langiletzat dut neure burua.

Pozik zaude?

Bai. Giro polita dago Txorierriin euskararen inguruan, eta horretan euskaltegiek ez ezik



“*Prestigioa eman behar diogu gure hizkuntzari: kalera ateraz, lanean erabiliz... euskaraz normal-normal biziz*”

euskara elkarteek, eskolek eta hainbat taldek dute zerikusia. Bakoitzak ahal duen neurrian egiten du lan; hala ere, ezin gara erlaxatu. Ezin dugu pentsatu dena eginda dagoenik euskara arloan; ez, behar handia dago oraindik egiteko. Eta euskararen etorkizuna guztion inplikazioaren beharrean dago. Erdaldunek ez dute pentsatzen gaztelania gal daitekeenik; baina euskarak badu, ordea, arrisku hori. Horregatik duela 40 urte nituen helburuak eta gaur egun

ditudanak berdinak dira. Bizitza osoa eman dut euskararen alde eta erretiroa hartzen dudanean ere, horretan jarraituko dut. Orduan ere, zoritxarrez, beharrezkoa izango dela pentsatzen dudalako.

Urrun ikusten duzu euskararen erabateko normalizazioa?

Bai, euskarari ez zaiolako prestigiorik ematen. Zelan prestigioa eman? Kalera ateraz, hauspoa emanez, zelako altxorra dugun jabetuz eta gozatuz, erakundeetan eta lan-tegietan erabiliz, lagunen artean...; hau da, euskaraz normal-normal biziz. Eta gainera, euskaldunok harrotasun puntua izatea ere ez legoke batere txarto. Baina gaur egun ez dago giro egokirik hori lortzeko, eta lotsa ere oztupoa da gehienetan. Euskara guztiok eskuartearen dugun altxor preziatua dela sarrarazi behar diogu jendeari bu-ruan, eta euskara galtzen bada, guztiok galtzen dugula.

Hästens

denda

Cuñan amabakero

chak

www.hastens.com

ARTEAGA koltxoi-denda

Deriska Sotilario • 94 434 51 47 • DEPIO


San Migel zaindari izan ge


AIKOR! aldizkariak zazpi urte bete berri ditu eta hitzordua urtarrilaren 29an izan genuen Arbilduko San Migel ermitan, Lauroeta auzoan. Historia handiko ermita da hori, eta oso leku berezia Lauroetakoentzat. Izan ere, auzokideek momentu inportante asko bizi eta antolatu dute haren inguruan. Ermita eszenatoki bitxia bihurtu zen egun batean, **AIKOR!** aldizkariaren zazpigarren urteurrena hartzeko.

Kanpai-hotsa entzun eta barrura sartu ziren lagunak. Ermitan 150 euskaltzale inguru batu ginen eta haien artean Patxi Uribarren euskaltzaina, Jose Elorrieta ELA sindikatuko idazkari nagusi ohia, Kepa Altonaga eta Juan Luis Goikoetxea euskaltzain urgazleak, Lontxo Zugazaga, Etxahun Lekue bertsolaria, Iñaki Gaminde hizkuntzalari eta iker-tzailea, Gotzon Barandiaran idazlea eta Katamalo proiektuaren taldekideak, Juan Migel Atxutegi Mankomunitateko presidentea, Sorkunde Aiarza Zamudioko alkatea, Txorierriko zinegotzi batzuk, Pedro Mari Goikoetxea kazetaria, Txorierriko hainbat elkarteren ordezkariak eta

Joxe Rojas Topaguneko teknikaria izan ziren. Eta zer esanik ez, aikor!lagunak eta aldizkaria urtez urte hazten ikusi duten lagunak, kolaboratzaileak, laguntzaileak eta lankideak.

Aurreko edizioetan bezala, Udane Goikoetxeak zuzendu zuen ekitaldia, eta hitza eman zien hizlari, musikari eta protagonistei: Etor Irazola Loiuko kultura





Bar TRIPPY
ZURE GEOFIK ONENA

Besta bazkara onetako gurea, onakia eta onakia
eta belduak irakatsi, eta el carter, Trivera, Berona

Arreba zure loka
2012

MODA INFANTIL
Trimeleta





Enfante infante II
Enfante II-14 H E
1.000 10.000 15.000

1000 10000 100000

TRIMELETA

Enfante infante II
Enfante II-14 H E
1.000 10.000 15.000

1000 10000 100000





eragin eta aldatu



Iñaki Murillo



Ane Arriaga



Aitor Berrueta

www.aiala.net

bazkari





ezkerreko **alternatiba** abertzalea

aralar



Txorierritarrak ere ibili dira “beste mundu bat” eraikitzen

Urtarrilaren 27tik otsailaren 1era bitartean Munduko Jendarte Foroa (MJF) izan da Belem do Paranen, Amazoniako hiriburuan (Brasil). Foroan mundu osotik ailegatutako 133.000 lagun inguruk eta 5.176 delegaziok hartu zuten parte. Euren artean, Igor Urrutikoetxea lezamarra eta Iñaki Barcena larrabetzuarra egon ziren. Igor LAB sindikatuko nazioarte-ko harremanetarako idazkaria da; eta Iñaki, unibertsitateko irakaslea eta Ekologistak Martxan taldeko kidea.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Iñaki Barcena eta Igor Urrutikoetxea

Munduko Jendarte Foroa 2001. urtean egin zen lehenengo aldiz Porto Alegren. Foroa kapitalismoaren aurkako fenomeno bezala sortu zen, eta bertan, globalizazio neoliberal eta merkatu librearen logika totalitarioa kritikatzeko duten ehunka ezkerreko erakunde eta milaka lagun biltzen dira. “Davos Suitzako hirian urtero egiten den Munduko Forum Ekonomikoaren kontrapuntua da. Han mundu kapitalistaren aditu eta ordezkariak batzen badira; indarrak biltzen dira MJFn, “beste mundu posible hori” martxan jartzeko”, azaldu du Iñakik.

Foroan jarrera nagusi bi antzeman daitezke: bata, foroa debaterako gune hustzat hartzen duena; eta bestea, munduko ezkerrearen aukerak planteatu eta borroka-estrategia zehatzak suspertzeko gunea izan behar dela uste dutena. “Izan ere, eztabaida helburu praktikoa argi batekin egin behar da: gaur egungo munduko errealtate injustuak eraldatzea. Foroa helburu horretarako tresna izan behar da”, dio Igorrek.

Eztabaida-guneak hainbat gai izan ditu hizpide: justizia soziala, emakumeen askapena, ingurugiroa, herri indigenen eskubideak, eta giza eta lan-eskubideak, besteak beste. Horrezaz gainera, autodeterminazio



eskubidea lehendabizikoz egon da egitarau ofizialaren barruan. Hori Foroaren Kontseilu Presidentzialean parte hartzen duten herri ezberdinetako kideen lanaren fruitua izan da, katalan eta euskaldunena bereziki. “Gaiak eduki duen protagonismoak argi erakutsi du globalizazio kapitalistari herrien autodeterminazio eskubidea errespetatuz egin behar zaiola aurre. He-

rriek askatasuna izan behar dute euren etorkizuna erabakitzeko; beharrezkoa da etorkizun politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala eraiki ditzaten”.

Euskal Herria, presente

Estatutik gabeko herrien karpas oso hurbil egon da indigenen karpatik aurtzen; jazoera bitxia Iñakirentzat. “Kuriosoa izan da nola uztartu diren estatutik gabeko nazioen errebindikazio politikoak eta indigenen erresistentzia-mugimendua. Mestizaje hori MJF Amazonian ospatzeak egin du posible”. Baina munduan bezala, foroan ere agerian gelditu dira ezberdintasunak eta kontrasteak. “Gutxi batzuk luxuzko hoteletan egon dira; eta milaka gazte, kanpadendetan edo Belemeko etxetan. Ugariak dira errealtate sozialak, eta zaila, batasuna. Hala ere, sareak sortzen dituzte hango harremanek eta eztabaidek”.

Igor LABeko ordezkari eta Euskal Herriko delegazio kide joan da Belemara, eta *Borroka soziala estatutik gabeko nazioetan* hitzaldian, eta elikagai eta energi burujabetzaren gaineko tailerrean aritu izan da hizlari. Era berean, bilerak egin ditu Amerikako hainbat sindikaturekin. “Pozik irten gara Euskal Herriak presentzia nabaria

“Aldarrikapen artean,
justizia sozialean
oinarritutako eredu
berri baten beharra
azpimarratu zen”

Munduko krisiak ere lekua izan du MJFn. “Munduko krisia baino, sistema kapitalistak bultzatutako ekoizpen ereduaren krisia esango nuke nik”, argitu du Igorrek. Gaia hainbat tailer tematiko-

Era berean, mundu mailako mobilizazioetara deitu zuten Belemen. Martxoaren 30ean Palestinarekiko atxikimendua adierazteko manifestazioak antolatuko dituzte, eta uztailean G8ren aurkako mobilizazioa egingo da Sardinian. Urriaren 12an ekintzak egingo dira herri indigenen alde.

SAKKIKOLA
OGITEGIA*Peromyscus*
musculinus

FMC Forest, S.A.

Información Pública
Reservados todos los derechos.
No se permite la explotación económica ni la transformación de esta obra. Queda permitida la impresión en su totalidad.

FMC forest 



Lezamako gazteak ere baserriz baserri ibili ziren egun soan zehar

bezala egiten dugu hori: entseguak egin, denok batera kaletik ibili... Nagusiak gara, baina oraindik badugu gauzak egiteko gogoia", dio Jesús Aurrekoetxea elkartearen presidentek. Horiek dirua ere biltzen dute, baina egitasmo altruistetara bideratzen dute. Iaz 1.500 euro inguru batu zuten eta SOS Deiak elkartari eman zioten. Aurten Caritasek jasoko du diru-bilketa.

Sondikan ere talde kantari bat topatu dugu, Txuma Olagüe Abesbatza, alegia. Santa Agedan ibilbidea egiten du herritik-mojen edo nagusien egoitza, adintsuen etxea...-, baina horiek ez dute dirurik eskatzen. "Moje gailetak eta ardo gozoa ematen dizkigute", dio Amaia Mendiola kide gazteenetariokak. Normalean 25 lagun biltzen dira eta harrera ona izan arren, nagusien etxean batzuetan ez diete jaramon handirik egiten. "Kartetan jokatzeko dabilzanean, batzuek ez digute ezta begirada bat ere botatzen. Eta gero nagu-

siak kexatzen dira gazteek tradizioei eusten ez dietelako...". Berdin dio, ohitura bizirik mantentzea baino ez dute nahi Sondikakoek, eta Txorierriko txoko guztietatik ibiltzen direnek ere bai. *Orain bagoaz alde egitera / agur daitzugu gogotik / Agate Deuna bitarte dala / ez eizu izan don-gerik... Eup!*


Santa italiarra

Sizilian III. mendean bizi zen gazte ederra izan omen zen Ageda. Quintianus senatariak beraz gozatu nahi zuen, baina gazteak ezetza eman zion, Jesukristorekin konpromisoa zuela argudiatuz. Mendekua hartu, eta neska torturatzeko agindua eman zuen Quintianusek. Bularrak moztu zizkieten. Kondairaren arabera, Agedari San Pedro agertu zitzaion, eta horrek osatu egin zuen. Hala ere, torturatzen jarraitu zuten, eta azkenean gori-gori jarritako ikatz-mordora bota zioten.

Santa Ageda Cataniako zaindaria da, eta erizainena. Osatzeko gaitasuna duela uste dugu Euskal Herrian. Gainera, bularretako gaitzak, edoskitze-arazoak edo erditzeko zailtasunak daudenean, berrari egin behar omen zaio otoitz. Euskal Herrian, santaren omenez etxez etxe kantatzeko ohitura dugu bezperan. Antzina, soldaduskara joan behar ziren gazteek (kintoek) abesten zuten, eta horren truke dirua jasotzen zuten. Gaur egun, ostera, adin eta mota guztietako lagunak batzen dira.



Lauro ikastolan harrapatu genituen Loituako nagusiak



Angel Serrano, Txorierriko Institutuko Gurasoen Elkarteko diruzaina

“Zer esana izaten dugu institutuaren eguneroko jardueran”


Presidente ibili da, baina seme-alabak nagusiak dira eta elkarteko diruzaina da orain. Angel Serrano betidanik egon da Txorierriko Institutuko Gurasoen Elkartean: hasieran, hiru seme-alabengatik; geroago, zerbait egiteagatik. “Jubilatuta nago, baina ez dut zahar etxera joateko gogorik. Han, kartetan jokatu besterik ez dute egingen, ez dira mugitzen”. Institutua eta elkarteak izan ditugu mintzagai.

Zelan eta noiz sortu zen elkarteak?

Elkarteak eta institutua elkarri lotuta daude. Orain 30 urte ez zegoen instituturik Txorierri, eta herri guztietako guraso batzuek institutua eraikitzeke eskatu genuen. Bestela, Mungiara edo Bilbora joan behar zuten hemengo gazteek. 1979an, institutua egingo zela jakinarazi zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta 1983ko urtarrilean hasi ziren eskolak ematen Derion. Hiru urte geroago, 1986an, geure elkarteak eratu genuen. Garai hartan ezinbestekoa zen elkarteak, dena berria zelako eta kontrol gutxi zegoelako.

Zelan dago elkarteak gaur egun?

Orain arte ez da oso ondo ibili. Hasieran, institutua sortzeko premia genuen eta garai hartan kezkak-eta zituzten gurasoek. Baina denbora aurrera joan eta bertan behera gelditu zen lan egiteko gogoak, eta gero eta jende gutxiago ziren guri laguntzen zigutenak. Gaur egun, berriz, oso ondo gabiltza: guraso berriak sartu dira Sonda eta Loiutik, batez ere, eta gauzak egiteko prest agertu dira. Guztira, 15 lagun ibiltzen gara eta denon artean banatzen dugu lana. Batzordeak antolatzen dugu eta bakoitzak gai bat hartzen du bere ardura-lean. Era horretan, zer esana izaten dugu



institutuaren eguneroko jardueran, eta hango arazoak konpontzen laguntzen dugu. Gainera, oso harreman ona dugu institutuarekin eta irakasleekin.

Zeintzuk dira zuen betebeharrak?

Elkarteak liburu denden lizentzia fiskal bera du. Hori dela eta, %25eko beherapena eskaintzen digute liburuak, koadernoak eta bestelako gaiak erosten ditugunean. Aspaldian ikerketa egin genuen eta umeeke motxiletan pisu gehiegi eramaten zutela jakin genuen. Hori zela eta, koaderno koloredun leunagoak egitea pentsatu genuen. Eta ikasgai bakoitzari kolore eta koaderno bat dagozkio. Gurasoek guri erosten digute materiala, noski, eta guk %15eko beherapena egiten diegu. Gainerako %10 elkarte-

ak berak erabiltzen du ekintzak-eta antolatzeke: irteerak edo eskolaz kanpoko jarduerak: entrenatzaileak topatu eta ordaintzea, autobusak kudeatzea...

Hori da zuen finantzabide bakarra?

Bai. Mila aldiz eskatu diogu laguntza Udalari, baina hori Mankomunitatearen ardura dela erantzuten digu. Mankomunitateari ere milaka gutun eta eskaera egin dizkiogu, baina hark ere ez digu jaramonik egingen. Inork ez du ezer egin nahi. Beraz, ez daukagu dirulaguntza publikorik. Eta lehen ez gintuzten elkartetzat jotzen, baina elkarteek ordaindu behar zuten zerga kobratzen ziguten. Orain ez da kobratzen, zorionez.

Gazteriari buruz gauza txarrak baino ez dira esaten. Horrenbestera da?

Nire ustez, gazteek ez diete errespeturik izaten helduei; eta izatekotan, gero eta txikiagoak izanda galtzen dute. Nik uste dut ikastera etorri behar dutela institutura,



baina heziketa gurasoek eman behar diete, eta batzuek ez dute hori ulertzen.

Institutuak D ereduko klaseak baino ez ditu eskaintzen. Euskal Herrian ez ezik, Estatuan ere iskanbilak sortu dira azken bolada honetan irakas-kuntzako hizkuntza ereduak direla eta. Zer deritzozu zuk?

Derion erdaldun asko daude eta gazte-laniaz ikasi nahi dutenek Mungia-
joan behar dute. Hori dela eta, ikasle gutxiago etortzen dira institutura. Hala ere, euskara gero eta garrantzitsua-
goa da eta egoera honetara egokitu behar dugu. Bestela, gure seme-alabek prestakuntza urriagoa izango dute.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ondo. Beste eraikin bat egingo dute, oraingoa txiki gelditu zaigulako. Txorierriko herriak ere gero eta handi-
agoak dira. Guk eskolako erakina erabil-
tzen dugu, baina haiek ere behar dute. Eraikin berrian elkartearen bulego berriaz gainera, ikastetxeko jantokia ere jarriko dute, besteak beste. 2010ean hasiko dira lanak, eta kamioi aparkale-
kuan ezarriko da.

**Ez da handiegia izango? Komeni-
garria izango zen Txorierriko beste insti-
tutu bat eraikitzea?**

Neuri ez litzaidake gustatuko oso insti-
tutu handia izatea. Leku handietan, irakasleek ez dute elkar ezagutzen eta, nire ustez, oso garrantzitsua da haien artean harreman estua izatea. Izan ere, arazoak bileretan konpontzen dira askotan, eta hurbilago egoten dira ikasleengandik. Txorierriko institutura 600 ikasle etor daitezke (orain 400 daude), baina ez dut uste gehiago ego-
kia izango denik. Beste institutu bat Txorierri? Ez dakit, ez legoke txarto ikasle kopurua kontuan hartuta. Hala ere, Txorierri txikia da eta bi institutu egonez gero, inbidia sor daiteke.

“Beste eraikin bat eraikiko dute epe laburrean, oraingoa txiki gelditu zaigulako”

“Euskara gero eta garrantzitsua da eta egoera horretara egokitu behar dugu”



BILKUNEN - BILKUNEN

Ruben

Lutetako Leizama Plaza, 5 - Tel: 94 65 14 49
Arenas (Bilbao)

LUTERIA LEZAMA

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

Nazari

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

SAN LEO

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

ADARRE KANTONIA

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

Arbilduko San Migel

AIKOR! aldizkariaren zazpigarren urteurrena Lauroeta auzoko San Migel ermitan ospatu dogu aurten. Lau-roeta auzoa Loiuun dago, Larrakoetxetik Gatikara doan bidean, eta San Migel ermitea be hantxe dago: 8,48 x 13 metroko eraikina da, hiru isuriko teilatua daukana. Kanpai txikia egurrezko egitura batetik eskegita dago eta San Migelen irudia agiri da ermitearen barruan. Jaiak irailaren 29an ospatzen dira.


San Migel ermiteak ez dauka aparteko balio artistikorik, geure auzoetan topau geinkezan beste ermiten antzekoa da. Halanbe, badau berezitasun bat, bere historiari zor deusana. Ezagutu daigun, bada, apur bat gehiago.

Etimologia

Ondoko baserriari legez, "Arbildua" esan zaio ermita honi antxinarik. Berba horren etimologia topau gura dauenak badau non arakatu: "arri bildua", "ara bildua"... Irudimena libre itxi ezker, errez egin leiteke hegaz Historiaurre-raino.

Latinezko idazkuna

Ermitearen inguruan, Larrakoetxetik datorren bidetik etorrita, hatx handi bat topau leiteke; bidearen eskoako aldean be hatxaren zati bat egoan antxina.



Hatxean erromatarren garaikoa izan leiteken idazkuna egoan: "*Vecunienses hoc munierunt*". Interpretazino bi egin dira haren esangureaz: lehenengoaren arabera, esaldiak "Begoñakoak babestua edo eraikia" esan gura dau; bigarrenaren arabera, "«Bekoa»koak babestua edo eraikia". Hatxa 1860an kendu ei zan, hargin batek beharrerako erabili ebalako.

Uribeko Merindadearen batzar lekua

Uribeko Merindadearen batzar orokorrak ermita honetan egiten ziran hainbat mendetan. Merindadeko ordezkariak hantxe batzartzen ziran; esate baterako, hau irakurri leiteke 1816ko ordenantzan: "*...Las Juntas Generales deberán celebrarse en la Hermita de Arbildua...*". Beste ordenantza batzuetan holan agertuten da: "*...se convocan Juntas en Arbildua...*".

Eta zer zan Uribeko Merindadea? Bizkaiko Jaurerria sei merindadek osatzen eben: Arratia-Bedia, Busturia, Durango, Markina, Zorrotza eta Uribe. Urbilduak eta Enkarterri be Jaurerriaren barruan egozan eta Orozko zazpigarren merindadea bihurtu zan geroago.

Uribeko Merindadea herri honeek osatu eben: Begoña, Abando, Deustua, Loiu, Sondika, Zamudio, Gamiz, Derio, Laukiz, Urduliz, Gatika, Maruri, Morga, Fika, Lezama, Galdakao, Etxebarri, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barakaldo, Erandio, Leioa, Getxo, Berango, Sopela, Barrika, Gortiz, Lemoiz, Bakio, Mungia, Meñaka eta Fruiz. Arbildua batzarlekutzat erabilten eben, merindadearen erdi-

aldeko ne
hortz klinika
Tel: 94 65 14 57

Anuska Prieto Aguilar
Odontóloga

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

BESTORRENE
bata-batena

SEKULARRA: LUTERIA LEZAMA 1457
KONKORDANTIA: LUTERIA LEZAMA 1457

, ermitea baino zerbait gehiago

gunea ei zalako.

Merindadeak errege-eskribau bi zituan 1762an, eta beste 12 eskribau xehe: hareetako bat, Lezama, Zamudio eta Derio herrientzat zan; eta bestea, Sondika, Loiu eta Erandio herrientzat.

Bandokideen borrokaldien lekukoa

Arbilduko San Migel ermitea bandokideen arteko borrokaldien lekukoa izan zan 1427an. Bizkaiko korrejidoreak batzarrera deitu eban Arbilduan urte horretan, orduko bando nagusi bien artean –Fortun Sanchez eta Areskurenagako Juan Ortiz– bakea lortzeko asmoz. Juan Ortiz gizon armadunakaz agertu zan eta, korrejidoreak ha preso hartzeko agindua emon ebanean, Ortizen aldeko batek baleztaz hil eban. Hiltzailea eta Juan Ortiz atxilotu eta exekutatatu egin zituen.

Abade euskaltzaleak

Hiru abade euskaltzaleak izan dabe harreman berezia ermita honegaz. Xabier Amuriza katekista ibili zan berton seminarioko azken urteetan, Luzio lagun ebala. Eta azken 30 urteotan, ia hutsik egin barik, bertsotara etorri da auzo honetara.

Mikel Zarate abade eta idazle lezamarra ermitako abadea izan zan, harik eta hil zan arte. Sarreran marmolezko plaka ipini zan haren oroimenez: “Mikel Zarate Lejarraga (Lagun-Abade-Irakasle) 1933-1979. Hementxe egoten izan zara/ baina



orain ez zaude/ gurekin./ Hementxe egoten izan gara/ baina orain ez gaude/ zurekin./ Orain alde egin duzu.../ betiko ote.../ “Ez, ez, ez”.../ Zure fedez/ zure lagunek diote/ agur, gure Mikel geroarte./ Lau-roetako eleiztarrak eta/ bere lagunak.”.

Amaitzeko, ezin dogu ahaztuta itxi ermita honetan domekaro meza emon dauen apaiza: Martin Orbe. Orbe Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria izan da eta hainbat behar egin dau euskerearen alde.

Ermita xume honek, beraz, badau zer irakatsi eta zer kontau. Ez daigun ahaztu... “izan ziralako gara”.

Testua: Bestorrene



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Elektronikazko gogakak

Ezkerreko gogakak

Plakak

Arazoak agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz



Avatar euskalduna

AnHitz euskaraz berba egiten dauen lehenengo zientzia-aditu birtuala da. Proiektua enpresa honeek garatu dabe alkarlanean: Vicomteh-IK4 eta Tecnalia-Infotech zentro teknologikoak, Elhuyar Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ixa eta Aholab taldeak. Eusko Jaurlaritzako Industria eta Kultura sailen laguntzea izan dabe. Proiektuaren helburua da pertsona eta gailuen arteko komunikaziorako behar diran hizkuntz teknologiak ikertzea eta garatzea.

AnHitz zientzia-aditu birtual interaktiboa da, eta euskalduna. Erabiltzaileak zientziaren eta teknologiaren arloetan egiten dizkion galderak erantzuten ditu euskaraz, eta berba



bakar edo anitzeko kontsultak be egin ahal jakoz. Horrezaz ganera, kontsultakaz zerkusia daben gaztelaniazko eta ingelesezko dokumentuak bilatu eta euskaratu egiten ditu.

Proiektuari esker, zazpi baliabide, hamahiru tresna eta zazpi aplikazino garatu eta hobetu dira euskara arloan. Beste alde batetik, euskarazko zenbait erreminta bildu dira lehenengoz aplikazino bakar baten: *Cross Lingual Information Retrieval* (informazio-bilaketa eleaniztuna), *Machine Translation* (itzulpen automatikoa), *Speech Synthesis* (ahotsaren sintesia), *Automatic Speech Recognition* (ahotsaren ezagutza automatikoa) eta *Visual Interface* (ikus-interfazeak).

Airea garbitzen dauen bonbillea

Bitxia da benetan Holandako enpresa batek ekoiztu dauen bonbillea. Kontsumo txikiko bonbillea da eta merkatuan dagozanek baino bizi ziklo luzeagoa dau. Ezaugarriok ez dira harritzekoak, baina bonbilla holandarrak ezohikoak diran beste onura batzuk be badakarz. Kea, hautsa eta polena kentzen ditu eta, ondorioz, alergiak ekiditen ditu eta airea garbitzen dau.

Onddoak, ura aurrezteko

Thader Biotchnology enpresako ikerlariak ondooz egindako bio-ongarria sortu dabe. Ongarri hori erabilia, ura aurretzen ei da landareak eta laboreak urreztatzean. Zelan? Onddoen filamentuak landarearen sustraiak baino azkarrago hazten dira eta elikagai gehiago hartzen laguntzen deusie. Ondorioz, azkarrago hazten da landareak.

Ikerlariak prozesu honi jarraitu deutsoe: landareentzat onuragarriak diran ondooak hartu, biderkatu eta hareez kutsatu dabe landarea. Eta holan, landareek aukera gehiago eukiten ditue aurrera urteteko. Onddozko bio-ongarria baratze-landareetan erabili daiteke (zitrikoak, piperrak, letxugak...), baita ornamentazio- eta baso-landareetan be.

 **Instalaciones ETORE**

Montaje de instalaciones, reformas
TEL: 94 404 20 20
Móvil: 607 50 15 55 48100 (VITOLIA)

 **Elcizaldg**
Kaleak 10

komunikazio eta informazio
zerbitzuak zerbitzuak (baita)
Gasteiz, 48100

 **Gesto**
Servicios de Gestión y Asesoría

Asesoría en el desarrollo de proyectos
Gestión de recursos humanos
Gestión de calidad
Gestión de riesgos
Gestión de la información

900 100 100 (gratuito) 900 100 100

 **IAZI JATETXEA**

Las Indias, 2 - 48100 VITOLIA (Vizcaya)
TEL: 94 404 20 20

GROW 'n' ROLL
BREWERY - CERVEZA

Apdo. 10000, 48100 VITOLIA 94 404 20 20

MARMOLCINTZA GOYO

REPARACIÓN DE MAQUINARIAS
UNIDADES DE CLIMATIZACIÓN

Elizagaite 1, 48100 VITOLIA
TEL: 94 404 20 20

Derio

Argazkia Derion egin zan. Data, leku zehatza edo baten bat ezagutzen badozu jakinarazo. Zelan? 944523447 telefono-zenbakira deituz, aikortxori@aikor.com helbidera idatziz edo www.aikor.com > txokoak > Atxinako argazkiak atalean erantzuna itxiz.



3 Felix Arevalo 4 Marcos
Lapategi 5 Pedro
Sarasola 6 Miguel
Arevalo 7 Faustino
Landa 8 Jesus Ogiza 9
Julio Elorriaga 10 Sabin
Aurrekoetxea 11 Elio
Bolunburu 13 Nicolas
Gonzalez 14 Juan
Zubieta



“LAIA HOTEL MUSEOA”



Hidromasaje hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal

izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa Berri zentroak relax zirkuitu hau eskaitzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzailea eta infragorritzko ohea.

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:
Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOTERAPIA
(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Zein lan antzeztuko du Ausartak Lezamako taldeak?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@aikor.com), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue)



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@aisiahoteles.com
www.aisiahoteles.com

Aurreko erantzuna:

Manu Perez eta
Alberto del Campo

Irabazlea:

Maider Pajarros



Bakoren bazterra

Ibai handiak,
ardo handiakIñaki Suarez,
sumillerra

Testu batean irakurtzen dut Pliniok deskribatu zuela nola aurkitzen diren ardo handiak: sekretua da ibai handien ondoan daukela. Hausnarketa horretan oinarriturik, hasi naiz ardogintzaren mapamundia gogora ekartzen, eta berehala egiaztatu dut halaxe dela, mitikotzat jotzen ditudan ardoek eta mundu mailako ezagupena duten eskualde ardogleek ondoan dituztela haiek besteko historia eta garrantzia dituzten ibaiak, denboraren joanean lagundu dutenak ez bakarrik eskualdeko paisaia marrazten, baita eragina izaten kliman eta ibaiotatik hurbil sortutako ardoen nolakotasunean.

Gonbidatzen zaituztet eskualde horietako batzuetan barna ibiltzera, hango ibaiak ezagutzera, ibaiokiko harreman horretatik sortutako magia ezagutzera:

Bordele (Frantzia): Itsasotik 100 km baino gehiagotara, herrixka bat zen antzina Garona ibaiko paduretan, Zesarren legioek

okupatua; orain, Frantziako eskualderik aberatsenetako bat da. Garona ibai horrek, Dordoina ibaiarekin bat eginik, lagun egiten dio munduan prestigiorik handiena duten mahastietako bati.

Borgoina (Frantzia): Fontenay, Vezelay eta Clunyo abadetxeetako harriek babesturik, Borgoinako goi ordokiari ihes egin nahi balio bezala, Saona ibaia azaltzen da, (nire iritziz) munduko sotil eta magikoena den mahastiari begira, bakarrik Chablis aldea utzirik albo batera, baina berari gogoraraziz bera ere talde horretakoa dela. *Chardonnay* eta *pinot noir* direlakoan lurraldea da.

Piamonte & Lombardia (Italia): Antzinatean, greziarrek "Enotria" (ardo lurra) deitzen zioten Italiari: zerbaitegatik zen. Iparraldean, ardo berdingabe eta zoragarriekin egiten dugu topo, bertako mahatsondoetatik atereak, hala nola *barolo*, *barbaresco* handiak... iparraldetik hegoaldera Po ibai historikoak bereziak, ibai hori baita Piamonte eta Lombardiako paisaia egituratzen duena.

Valle Central & Aconcagua (Txile): Maipú, Maule eta Aconcagua ibaiak poesia bihurtzen dute mahasti eremu gero eta handiago bat, harro dagoena filoxerak (epidemia bat da, XIX. mendean europar mahastiak ia suntsitu zituen) joak ez dauden jatorrizko mahatsondoak edukitzeaz, eta *Semillon*, *cabernet sauvignon* eta abar ematen dutenak...

Ribera del Duero & Dauro (Espainia eta Portugaleko Estatuak): Duero ibaia, historiaz betea, Gaztelatik Tinta Fina mahatsondoari lagun egiten diona; Penintsulako ardo onenetakoren baten aitzindaria da eta atxedenik gabe egiten du aurrera Portugalera, han Dauroko ardoekin topa egiteko gurekin.

Adibide batzuk baino ez dira, baina argi dirudi mahatsondoak ez duela gogokoa "oinak uretan edukitzea", baina bai hurbil samar. On egin!

Etxeko sukaldaritza

Patatak
Errioxako erara

Osagaiak (lau lagunentzat):



- Kinpula eder bat
- Kilo bat patata
- Txorizo bi
- 250 g saiheski
- Kaiena
- Olioa, ura eta gatza

Prestatzeko erea:

Kinpulea garbitu eta txikitu ostean, kazola baten erregosiko dogu. Txorizoak eta saiheskia be txikitu eta kazolara botako doguz. Su ez titan pare bat

Maite Lekerika,
sukaldaria

minutuan eukiko dogu prijitzen. Patatak (aldezt aurretik zuritu, garbitu eta dadotan txikituta), ura, gatza eta kaiena botako doguz. Kazoleari estalkia jarri eta surtan 20 minutuan izango dogu.



Ercoreca
supermerkatuak

Elikaduran adituak

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

Réquiem

X. Arbelbide. Geroari buruzko gogo-eta.

Belarra kantari

D. Lessing

Zazpi etxe Frantzian

B. Atxaga

Euskaldun zintzoaren etxerako eskuliburua

A. Eizagirre. Historian zehar euskaraz irakurtzen eta idazten nola ikasi eta irakatsi den aztertzen da liburu honetan

HAUR ETA GAZTE

Basajaun eta zikoina txikia

S. Pinto

Hori bai ipurdia

A. Dueso

Yu-Ling

A. Irusta

Zu nirean, ni zurean

S. Calleja

MUSIKA

Ospea

X. San Sebastián

Isladak

Kakuta

Kiribil

Xura

Gauari gauarekin

Lauroba

Xabi San Sebastián

DENBORA PASA

LETRAZOPA

E	A	S	O	G	A	Ñ	Y	K	K	P	L	R
P	M	Y	I	X	I	J	U	N	H	A	S	T
Z	S	A	L	Y	P	I	J	T	Y	O	Z	F
T	K	R	K	J	M	U	Y	A	G	A	R	A
X	B	O	H	U	G	X	R	Ñ	F	E	L	S
B	P	U	Ñ	L	R	R	N	K	U	T	B	M
H	R	A	R	R	E	T	X	I	K	O	U	F
P	S	O	K	F	F	Ñ	G	K	E	L	N	A
E	A	Z	D	M	X	E	D	I	D	E	E	E
R	P	N	T	B	D	E	H	L	I	P	K	B
Z	A	E	M	O	G	A	R	I	T	J	H	A
Ñ	T	A	G	B	J	N	I	M	D	M	L	T

E	O	L	S	G	F	E	U	M	A	R	R	E
G	Z	A	N	S	E	P	E	X	O	T	D	S
J	A	X	E	R	R	A	P	U	E	L	Ñ	M
Y	Z	S	B	L	A	O	K	B	D	F	A	G
O	T	E	A	T	I	U	D	Y	Z	U	R	R
M	N	B	N	A	R	N	S	H	K	I	B	F
I	A	T	N	B	H	B	A	M	A	G	U	P
H	R	K	G	T	M	F	R	Z	X	P	S	L
U	R	J	D	J	Ñ	L	A	X	T	J	T	O
N	O	H	K	I	A	N	T	Y	M	N	O	F
I	L	E	Ñ	D	Z	I	Z	L	Y	N	A	K
L	E	I	X	A	R	R	A	H	J	Z	Ñ	M

Umeen olgetara hurbilduko gara. Ia gai zaren **umeen olgetakaz zer ikusirik daben 7 berba** aurkitzen* goiko letra-zopan. Kontuan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dagozela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 78. zenbakiaren erantzuna. 7 baso landare edo zuhaitz.



Antzerkia eta filmak

Zamudio

–Varekai ikuskizuna, Cirque du Soleil konpainiaren eskutik.

Apirilaren 16an. Izena ematea: martxoaren 16ra arte.

–History boys antzezlaria. Apirilaren 30ean, Arriaga antzokian.

Izena ematea: apirilaren 24ra arte.

Larrabetzu

–Filmak. Martxoaren 28an, Anguleri Kultur Etxean, saio bi: 16:00etan, umeentzat; 18:00etan, nagusientzat.

Erakusketak

Sondika

–Gorka Azaolaren lan plastikoa. Martxoaren 2tik 31ra, liburutegian.

Lehiaketak

Sondika

–Herriko jaietako XXI. Kartel lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: martxoaren 20ra arte.

Hitzaldiak

Lezama

–Trokak jaistea, Josu Granja eta Diego Dulantoren eskutik. Martxoaren 27an, Kultura Aretoan. Udalak eta Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

Larrabetzu

–Kirolaren onura, hirugarren adinekoentzat. Martxoaren 11n, 16:00etan. Gure Etxean.

–Amor y límites. Martxoaren 20an, 19:30etan, Kultura Aretoan.

Ikastaroak

Sondika

–Udal ikastaroak eta lantegiak. Izena ematea: martxotik 2tik 6ra, 94 453 51 71 telefonon.

–Sendabelarrak eta prestakinak. Maiatzaren 9tik ekainaren 13ra, zapatuetan, 10:00etatik 12:30etara, Kultura Aretoan. Izena ematea: martxoaren 30etik apirilaren 3ra, liburutegian, doan.

–Dantza modernoak, gazteentzat. Apirilaren 23tik ekainaren 18ra, ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara, Gaztetxean. Izena ematea: martxoaren 23tik apirilaren 6ra, Gaztetxean.

Zamudio

–Ardo dastatze ikastaroa. Martxoaren 3an, 5ean eta 6an, 19:00etatik 21:00etara, Larragoiti jauregian. Lagatzuk antolatuta.

Lezama

–Ofimatika ikastaroa, Lezaman erroldatutako emakumeentzat. Apirilaren 20tik uztailaren 1era, KzGunean. Izena ematea: apirilaren 1etik aurrera, liburutegian, doan.

Larrabetzu

–Internet erabiltzeko ikastaroa, nagusientzat. Martxoaren 26an, 10:00etan, Kultur Etxean.

–El cuidado del alma infantil, Cristóbal Gutiérrez hezitzailearen eskutik. Informazioa: caibillbao@gmail.com; 94 455 89 40 (Angela Menica).

Irteerak

Txorierri

–Derio-Geldo-Lezama. Martxoaren 8an. Berbalagun taldeak antolatuta.

Lezama

–Besaide. Martxoaren 29an, Gailur Mendi taldeak antolatuta.

–Euskadi eta Nafarroaren arteko Trenaren

Burdinbide Berdea. Martxoaren 29an, Zorribike Txirrindulari Kirol Taldeak antolatuta.

Sondika

–Eretza. Martxoaren 22an, 9:00etan, Goronda Gane eskolako aparkalekuan. Izena ematea: martxoaren 16tik 19ra, liburutegian. Udalak eta Goronda Gane I.P. Guraso Elkartek antolatuta.

–Gorbeia. Martxoaren 21ean, 9:00etan, Lehendakari Agirre eta Txorierri Etorbideen arteko bidegurutzean. Izena ematea: martxoaren 2tik 15era, Gaztetxean.

Tailerrak

Lezama

–Graffitiak, 10 eta 14 urte bitartekoentzat. Martxoaren 27, 28 eta 29an, Gaztegunean.

Bestelakoak

Txorierri

–Berba-afaria. Martxoaren 13an, Lezama-ko txokoan. Ondoren, Txan magoa. Izena ematea: 635 75 35 95. Berbalagun taldeak antolatuta.

Sondika


–Haur sahararrak udan hartzeko interesa dutenek 94 453 51 71 telefonora deitu ahal dute.

Larrabetzu

–Ipuin kontalaria, Gertakari paranormalen bila. Apirilaren 2an. 18:00etan, Kultura Etxean.

Zamudio

–Bilbao-Bilbao zikloturista martxa. Apirilaren 6an, 10:30tik 11:45ra.



GARAIOLTZA, S.A.

INDUSTRIAK ERABILTZEAK

LEZAMA

ETXEREGITZAK, MERKATUNTZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERABILTZEAK, LEHEN KANTZAK

ORDAINTZEKO DUAZTASUN ILANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Urduloren zuzena, 128 (berria)
Lezama (Bizkaia)

Qure gizarte erantzukizunak ingunumena zaintzera behartzen gaitu...



...malla handiko teknologiarekin.

ITP Talden atalegi handia egiten dugu ikasketa alorrean hegazkin-motor eraginkorrenak eta alimendatze OAP garaiak nurekin daramen. Aurrerantzean, ikasleak beren eragikortasunak ikasleentzako eragile, ikasleak eta ikasleak talde-lana berriztatzen dute. Ikasleak, ingurumen alorreko ikasleak integratu jarri duen Espainiako lehenengo eragile aeronautikoa gara. Ingurumen eragileentzako ikasleak ikasleak ikasleak jarri duen berriak berriztatzen dituzte.



2009

Industria de Turbos Presurizados S.A.

www.nature.com/scientificreports/

ETXEBIZITZA BABESTUEN ZOSKETA DERION



3. ezkerre da!!



LANDAHER

1. Introduction

Bizitzeko leku paragabea

94 645 90 15

www.sagepub.com2. **tasviri etichetleri** (bölüm 4)

Reactor aprilean coplea din 2. Func-tionelele de clasificare sunt realizate prin intermediul programului de Landeard. Clasificarea este realizată pe baza de func-tionele de clasificare de Landeard. Func-tionele de clasificare de Landeard sunt realizate pe baza de func-tionele de clasificare de Landeard.

Concurrence between -theories

[illegible]

sukra
Date class: _____